



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/04/06

Batzar Nagusiek bat egin dabe Bizkaiko bidesarien tarifa eredu "integrala" aztertzeko Aldundiak dauen helburuagaz

Gaur goizean Bilbon alkartu dan Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako batzordeak, “hiru hilebeteko epean” bidesarripeko errepideetako erabiltzaile diran bizkaitarrei hainbat kenkari mota apliketean aintzat izango dauen lurraldeko tarifa eredu integrala egitea erabagi dau. Txosten horrek “bideko azpiegituren finantzaketa ereduak iraunkortasunerako dituan ondorioak aintzat izan beharko ditu”. EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek aurkeztu daben arauz besteko proposamenak PP taldearen eta Talde Mistoaren –Arturo Aldecoa buru izan dauen taldea batzordean lehenengoz egon dan aldia izan da– aldeko botoa eta EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen kontrakoa jaso ditu.

Saio berean ez da onartu EH Bildu taldeak aurkeztu dauen beste proposamen bat, Foru Aldundiak 28 euroko tarifa “laua” ezarri daian ibilgailu arinentzat, “eragile guztien, garraiolariak eta auzokideen ordezkariak barne, parte hartzea izango dauen” eztabaidea martxan jarri aurreko konponbide “iragankor” moduan. Koalizinoko abertzalearen proposamena ez da onartu, Podemos Bizkaia abstenidu egin dalako eta Batzarretako ganerako taldeek ezezko botoa emon dabelako.

Zigor Isuskizaren eretziz, jeltzaleek eta sozialistek planteau daben ekimena, indarrean dagoan ereduaren “eguneratzearen” aldeko apustua egitea da, eta bere berbetan eredu hori “agortuta” dago. EH Bilduko ordezkariarentzat, “beharrezkoa da” Bizkaiko errepideen finantzaketa eredu “sustraitik aldatzea”, “ez dalako jasangarria”. Aldundiak azterlana aurkezteko behar izan dauen denpora luzeegia salatu dau Isuskizak, “8 hilebete” igaro diralako azterlan horretan beharrean hasi zanetik.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek azterlana egitearen aldeko apustua egin dabe, neurri “zehatzak” hartu aurretik egoeraren “argazkia” izatea beharrezkoa dalako. Euren eretziz, proposamena onartu eta 3 hilebeteko epea azterlana egiteko denpora “nahikoa” da, baina azterlan “zorrotzak bere denporea behar dauela” be adierazo dabe.

PP taldeko Jesus Isasik, bere aldetik, eskaria egin deutso Aldundiari, bidesarien azterlanagaz batera, Errepideen Lurraldeko Sektore Planaren “zirriborroa” be aurkeztu daian.

Podemos Bizkaia ez dau onartu EH Bilduk planteetan eban 28 euroko tarifa laua, “desbardintasunak eragin daikezalako”, eta Euskadiko bide sare osoan gehieneko prezioa ezartea aztertu daitela eskatu dau, garraio publikoaren “txartel bakarragaz” egin gura danaren antzera. Jeltzaleek eta sozialistek proponidu daben azterlanari jagokonez, “ad hoc” izango dala aurreratu dabe. Bidesarien ganeko erespidea “bakotxari komeni



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

jakon moduan aldatu daiteke”. Neskutz Rodríguez Batzarretako talde horren bozeroalearen eretxiz, erabagi “politikoa” izango da.

“AUTOCARAVANINGERAKO” LAGUNTZEA

Beste alde batetik, batzordeak, aho batez, Podemos Bizkaia eta PP taldeen zuzenketa-eske bat onartu dau. Horren bitartez, Batzar Nagusiek eskaerea egiten deusie Bizkaiko Foru Aldundiari, “autocaravaning izenez ezagutzen dan turismo modalidade barria bere turismo eskintzari gehitu deion, autokarabanetarako lekuak egokitzuz, Udalakaz lankidetzan”, eta bere webgunearen “Turismoa” erlaitzean pertsona horreentzako lekua jarri daian.

Batzarretako talde guztiak bat etorri dira turismo moeta horrek Bizkaiaren dauen gero eta garrantzi handiagoa azpimarratzeko orduan. Eztabaidan adierazo danez, une honetan Bizkaian, bidaiari horreek gaua igaroteko aukera eskintzen daben bost gune dagoz, Bilbon, Bermeon, Sopelan, Lekeition eta Lanestosan, eta beste puntu batzuetan aparketako baimena emoten jake.

Talde biek gogoratu dabenez, lehendik be Bizkaiko Batzarrek turismo moeta horren aldeko eretxia emona eben, 2006an PSE-EE taldeak aurkeztu eban arauz besteko proposamen bati erantzunez, eta 2014an PP taldeak aurkeztutako beste batean oinarrituta. Halanda be, Bizkaiko Batzarrek apustu hori barriztauz egin dabe, urtero Espainiako estaduan “200.000 ibilgailu inguru” mobiduten dituan turismoari erantzuteko. Estaduan “35.000” autokarabana dagoz matrikulautu.

EAJ-PNVren lerroetatik eskaria egin da Udalen esperientzia kontuan hartu daiten, horreek diralako dagoan eskaerea ezagutzen dabenak, eta baita gune berezi horreen kokalekua “baldintzatu daikien” ingurumenaren aldetik babestutako lurraldeko guneak be, kontuan izan behar dalako gune berezi horreek, argia, ura eta hondakinak isurtzeko instalazinoak moduko zerbitzuak euki behar dituela.

BI-630 BALMASEDA-KARRANTZA ERREPIDEA HOBETZEA

Aho batez onartu dan beste ekimen baten bitartez, talde moreak proposamena egin dau, Foru Aldundiak “emon beharreko pausuak emon daizan” Enkarterriko udalerririk mendebaldekoenak (Lanestosa, Karrantza, Turtzios eta Artzentales) Kadaguako korridorearen ingurukoakaz lotzen dituan errepidea “orokorrean eta nabarmen” hobetzeko. EH Bildutik esan danez, ekimen hori Karrantzan eta Lanestosan adostutakoei gehitzen jake.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek adierazo dabenez, Aldundia BI-630 errepidea Balmaseda eta Karrantza artean egokitzeko eta hobetzeko proiektua “idazten ari da”. 2014. urteko trafikoaren datuak kontuan izanda, egunero, batez-beste, “2.130” ibilgailu ibiltzen dira



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

errepide horretatik. Hobekuntzarako “3 milioi euro baino gehiagoko” inbertsinoa egin beharko da, beste eginbehar batzuen artean “errepidearen plataformea egonkortzeko, zoladuran lan egiteko, seinaleztapena, drainatzea eta balizamendua hobetzeko eta ibilgailuei eusteko sistema barriak instalatuko”, zehaztu dau Joaquín Colmenerok (PSE-EE).



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

06/04/2016

Juntas Generales avala la pretensión de la Diputación de estudiar un modelo "integral" de tarifas en los peajes de Bizkaia

La comisión de Desarrollo Económico y Territorial de las Juntas Generales de Bizkaia, reunida esta mañana en Bilbao, ha acordado la elaboración, “en el plazo de tres meses”, de un estudio sobre el modelo integral de tarifas del territorio, que contemple las distintas modalidades de bonificaciones que puedan aplicarse a vizcaínos y vizcaínas en las vías sometidas a peaje. Dicho informe “deberá contemplar las consecuencias para la sostenibilidad del modelo de financiación de las infraestructuras viarias”. La proposición no de norma planteada por PNV y PSE-EE ha contado con el apoyo del PP y del grupo Mixto –liderado por vez primera en comisión por Arturo Aldecoa-, y el voto contrario de EH Bildu y Podemos Bizkaia.

En la misma sesión, se ha rechazado otra proposición de EH Bildu para que la Institución foral estableciera una tarifa “plana” de 28 euros, para vehículos ligeros, como solución “transitoria” antes de la puesta en marcha de un debate “con la participación de todos los agentes, incluidos transportistas y representantes de los vecinos”. La propuesta de la colación abertzale ha sido desestimada con la abstención de Podemos Bizkaia y el voto contrario del resto de formaciones de la Cámara vizcaína.

Para Zigor Isuskiza la iniciativa planteada por jeltzales y socialistas supone apostar por “una actualización” del modelo vigente, el cual –según él- está “agotado”. Para el representante de EH Bildu es “necesario cambiar de raíz” el modelo financiero de las carreteras vizcaínas, ya que “no es sostenible”. Isuskiza ha denunciado la tardanza de la Diputación en presentar el estudio cuando han transcurrido ya “8 meses” desde que se comenzó a trabajar en él.

PNV y PSE-EE han apostado por elaborar el estudio ya que antes de tomar medidas “concretas” se necesita tener “una foto” de la situación. Consideran que el plazo de 3 meses desde la aprobación de su propuesta es tiempo “suficiente” para su elaboración, al tiempo que advertían que un estudio “riguroso lleva su tiempo”.

Por su parte, Jesus Isasi, del PP, ha pedido a la Diputación que presente, junto al estudio de peajes, un “borrador” del Plan Territorial Sectorial de Carreteras.

Podemos Bizkaia ha rechazado la tarifa plana de 28 euros que planteaba EH Bildu porque “puede crear desigualdades” y han propuesto que se estudie la creación de un precio máximo en el conjunto de la red viaria vasca, al estilo de lo que se quiere hacer con el “billete único” del transporte público. En cuanto al estudio propuesto por jeltzales y socialistas han vaticinado este que será “ad hoc”. El criterio de los peajes “puede



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

variar según convenga”. Para la portavoz de este grupo juntero, Neskutz Rodríguez, será una decisión “política”.

APOYO AL “AUTOCARAVANING”

Por otra parte, la comisión ha aprobado, por unanimidad, una enmienda transaccional de Podemos Bizkaia y el PP en la que las Juntas Generales instan a la Diputación foral de Bizkaia “a que añada a su oferta turística esta nueva modalidad de turismo conocida como autocaravaning, impulsando áreas de autocaravanes en coordinación con los ayuntamientos” e incluyendo en la pestaña de “Turismo” de su web un espacio para estas personas.

Todos los grupos junteros han coincidido en destacar la relevancia creciente de este tipo de turismo en Bizkaia. En el debate, se ha informado de que en el territorio existen actualmente cinco áreas de servicio en Bilbao, Bermeo, Sopela, Lekeitio y Lanestosa, en donde estos usuarios pueden pernoctar, y otros puntos en donde se les está permitido estacionar.

Pese a que la Cámara vizcaína ya había mostrado su apoyo a este tipo de turismo en sendas proposiciones no de norma aprobadas, una en 2006 presentada por el PSE-EE, y otra en 2014 por el PP, según han recordad ambos grupos, el Parlamento vizcaíno ha renovado esta apuesta con un nuevo acuerdo para dar cobijo a un turismo que cada año mueve “unos 200.000 vehículos” por el Estado español, y en donde hay matriculadas “35.000” autocaravanas.

Desde las filas del PNV se ha pedido que se tenga en cuenta la experiencia de los ayuntamientos que son quienes conocen la demanda existente, así como las zonas medioambientalmente protegidas del territorio que “pueden llegar a condicionar” la ubicación de estas áreas especiales que deben de disponer de ciertos servicios como luz, agua e instalaciones para vertidos de residuos.

MEJORA DE LA BI-630 BALMASEDA-KARRANTZA

A través de otra iniciativa, acordada también por unanimidad, el grupo morado ha planteado que la Institución foral “dé los pasos necesarios para afrontar una mejora general y sustancial” de la carretera que une los municipios más occidentales en Enkarterri (Lanestosa, Karrantza, Trucios y Arcentales) con aquellos situados en las inmediaciones del corredor del Cadagua. Esta iniciativa se suma a las mociones acordadas en Karrantza y Lanestosa, según han apuntado desde EH Bildu.

PNV y PSE-EE han informado de que la Diputación “está redactando” un proyecto de adecuación y mejora de la BI-630 entre Balmaseda y Karrantza, por la que circulan cada día, de media, “2.130” vehículos, según los aforos de tráfico del año 2014. La mejora



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

acarreará una inversión de “más de 3 millones de euros” para, entre otras cosas, “estabilizar la plataforma viaria, actuar en el firme, mejorar la señalización, el drenaje y el balizamiento, e instalar nuevos sistemas de contención de vehículos”, ha precisado Joaquín Colmenero (PSE-EE).